

# MEMORIA HISTORIKOAREN BERRESKURAPENA LANTZEKO MATERIAL PEDAGOGIKOAK



*Ebenseeko kontzentrazio-esparrutik bizirik irten zirenak, 1945ean.*

## **Gurseko deportazioa:**

1942ko abuztutik 1943ko otsailera.

Gursetik 6 konboi irten ziren 3.907 lagun Auschwitzera eramateko, Drancytik igaro ondoren.

## **Gurseko kontzentrazio-esparruko presoak:**

Alemania, Polonia eta Austriatik etorritako 26.641 judu.

Espainiako 24.520 errepublikano (horietatik 6.555 euskaldunak eta 6.808 Nazioarteko Brigadistak, 52 herrialdetakoak).



## **Euskal Memoria:**

### *Euskaldunen deportazioa kontzentrazio-esparruetara*

## 1. SARRERA

Gerra zibilean eta frankismo garaian asko izan ziren nazioarteko zuzenbideak debekatu eta kondenatutako jazarpen larrien biktimak, hala nola tortura, judizioz kanpoko exekuzioak, biztanleria zibilaren aurkako erasoak, politikagatiko, erlijioagatiko edo arrazagatiko jazarpena, espetxeratze arbitrarioak, bortxazko lanak eta gizadiaren aurkako krimen gisa definitutako beste hainbat ekintza. Urraketa horiek, gaur egun, ez dute ordainik izan eta estatuak ez ditu, oro har, aintzat hartu.

Giza eskubideen urraketa larri edo masiboen biktimak nazioartean aitortuak izan dira eta hiru atal nagusitan bildu daitezkeen hainbat eskubide aitortu zaizkie:

-Egiarako eskubidea.

-Justiziarako eskubidea.

-Ordaina izateko eskubidea.

Memoria historikoaren berreskurapena lantzeko aurkezten ditu **Bakeolak** material pedagogiko hauek, iraganari jarrera autokritikoarekin begiratzeko asmoz.

Begirada horrek ordaindu gabeko bidegabekeriak eta urraketak aztertzeko eta memoria eredugarria eraikitzeko aukera emango du, oraina eta etorkizuna "argitzeko" aukera emango duena, hemen eta orain ez errepikatzeko baldintzak bermatuta.

Landutako denbora-tartea 1936 eta 1977 artean igarotako urteetara mugatuko da eta hor hiru aldi hauek bereizi ahal izango ditugu:

- Espainiako gerra zibila (1936-1937).
- Diktadura frankista (1939-1975).
- Trantsizio demokratikoa (1975-1977). Bizitutako diktadura luzearen ostean oraindik ere inertzia eta dinamika frankistak zeudelako eta, beraz, nazioarteko hiru printzipio eta jarraibideak urratzen dituzten egoerak eta zapalketak gertatu zirelako gehitu dugu azken garai hori.

Material pedagogiko honek memoria historikoa berreskuratzeko alorraren barruan hainbat gai landuko dituzten **unitate didaktikoak** ditu.

- Erbesteratutako eta kontzentrazio-esparruetara bidalitako pertsonak.
- Gerrako haurrak.
- Emakumeak gerran.
- Politikariak eta sindikalistak.

Material hauetan jorratutako urraketen gaia honi buruzkoa izango da: **kontzentrazio-esparru nazietara deportatutako gizon-emakume euskaldunen egoera**.

Erreminta-kaxa honetan prestatutako material guztiek generoaren ikuspegia kontuan hartzen dute eta emakumeak Bakearen eta Giza Eskubideen Kulturaren eraikitzaile aktibo gisa duen eginkizuna baloratzen dute, berdintasunak erakundeei gizarte, elkarte eta pertsona mailako onurak ekartzen dizkiela eta hainbat arau juridikotan onartutako eskubidea osatzen duelako uste osoarekin.

## **KONTZENTRAZIO ESPARRU NAZIETARA DEPORTATUTAKO GIZON-EMAKUME EUSKALDUNAK**

1940 eta 1945 urteen artean gutxi gorabehera 150 gizon-emakume euskaldun kontzentrazio-esparruetara deportatuak izan ziren. Gerra Zibilari eta Francoren diktadurari ihes egin nahian Frantziara erbesteratu ziren.

Haien erdiak soilik lortu zuen zorigaitzoko esperientzia hari bizirautea. Beste erdia erbestean bizitu zen gainerako bizialdian. Euskadin geratu ziren haien senideek isiltasunaren lege gogorra sufritu zuten eta askok ez du duela urte gutxi arte ahaide maiteen egonlekuaren eta izandako zortearen berri izan. Beste batzuk horren berri izan gabe hil dira.

Euskal herritarren zati batek ez daki gertakari horien berri. Ez dago erbesteratutako haiek aitortu eta gogoratuko dituen monumenturik. Gure historian gainditu gabe dagoen gaia da.

## 2. APLIKAZIO ALORRA

Material pedagogiko hauek ikastetxeetako irakasleei eta elkarteetako hezitzaileei zuzenduta daude, gazteekin garatu ahal izateko.

Materiala soltean, modu independentean, edo guztia prozesu gisa hartuta erabili ahal izango da.

Unitate didaktiko bakoitza **3-4 saioz** osatuta dago. Saioak erraz egokitu ahal izango dira ikastetxe edo talde bakoitzeko programazioetara, hezkuntza-sistemako oinarrizko gaitasunekin zerikusia baitute.

Bereziki ondo egokituko dira tutoretza, bizikidetza, etika eta antzeko alorretako programetan, baina curriculumeko bestelako alorretan txertatzeko ere aukera eskainiko dute, hala nola euskara, gaztelania, historia, ingurunearen ezaguera edo aisialdiko elkarte eta taldeek hiru hilekoan zehar programatutako ekintzetan.

## 3. HELBURU OROKORRAK

- Hezkuntza-komunitateei eta herritarrei, oro har, memoria historikoa berreskuratzeko baliabideak hornitzea.
- Gertatu zenari (bidegabekoa izan zenari) buruzko gaitasunak eta ezagutzak hobetzea eta errepika ez dadin lan egitea.
- Memoria historikoa berreskuratzea eta justizia egitea aitorenaren eta ordaina ematearen ikuspegitik, gertatutako urraketen aurrean.
- Adiskidetzaren lantzea eta bereziki biktimei arreta eskaintzea, sufritutako biolentziaren lekuko moralak izan diren aldetik.
- Gure iragan hurbilean gertatutakoa zabaltzea eta giza eskubideen sustapenarekin uztartzea.
- Emakumeari Bakearen kulturako eta Giza Eskubideetako eraikitzaile aktibo gisa balioa ematea.

## 4. OINARRIZKO GAITASUNAK

### Hizkuntza-komunikazioa:

- Kontzeptu, datu eta pertsonaia historikoak argitzea.
- Gaiak berezkoa duen oinarrizko hiztegi espezifiko eskuratzea.
- Landutako gaiei buruz argudiatzea eta eztabaidatzea.
- Esaldiak eta kontzeptuak lotzea.

### Mundu fisikoaren ezagutza eta horrekiko interakzioa:

- Hainbat leku, bide, ibilbide eta kontzentrazio-esparru mapan aurkitu eta kokatzea.
- Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala.
- Esanguratsuak diren alderdiak eta esanguratsuak ez direnak bereiztea, eta iturriak lotzea eta alderatzea.
- Internet bidez eskuratutako informazioa bilatzea, hautatzea eta aztertzea.
- Informazioa modu kritikoan txertatzea eta aztertzea.

### Ikasten ikastea:

- Hainbat motatako arazoibideak aplikatzea eta kausa anitzeko azalpenak bilatzea.
- Hainbat bidetatik eskuratutako informazio-iturriak, informazioaren bilketa, sailkapena eta azterketa ezagutzea.
- Lan egiteko, denbora antolatze eta banatzeko, kontsultak egiteko eta abarretarako ohiturak hartzea.

### Autonomia eta norberaren ekimena:

- Gaiei buruzko informazioa bilatzea.
- Egindakoa aztertzea, planifikatzea, ekitea, berrikustea eta ondorioak ateratzea ekartzen duten eztabaidak eta taldeko lanak egitea.

### Gizarte eta herritar gaitasuna:

Gaitasun hau garrantzi handikoa da, gazteak herritar arduratsu eta aktibo bilakatzeko aukera ekarriko duelako. Horrez gain, hau guztia jasotzen du:

herritarren eskubide eta betebeharren ezagutza, balio demokratikoekiko errespetua, eta elkartasunaren, tolerantziaren eta gizarte demokratikoan parte hartzearen garrantzia.

Europako Parlamentuak (2005) honela definitzen zituen "gizarte eta herritar gaitasunak" jasotzen zituen:

*"Gaitasun pertsonalak, pertsona artekoak eta kultur artekoak jasotzen dituzte gaitasun horiek eta pertsonak bizitza sozial eta profesionalean eta, batik bat, gero eta gizarte dibertsifikatuagoetan, modu eraginkor eta eraikitzailean parte hartzeko eta, kasuan kasu, gatazkak ebazteko prestatzen dituzten jarrera guztiak biltzen dituzte. Herritar gaitasunak hiritar bizitzan erabateko partaidetza izateko prestatzen ditu pertsonak, kontzeptu eta egitura sozial eta politikoen ezagutzari esker eta partaidetza aktiboko eta demokraziako konpromisoari esker".*

Material pedagogiko hauen garapenaren eta txertaketaren xedea parte-hartzaileek gizarte eta herritar gaitasuna eskuratzea da.

## 5. EDUKIAK

### Eduki kontzeptualak

- Espainiako eta Europako historiaren barruan aztertutako gertakariak testuinguruan kokatzea.
- Gerra zibilaren kausak, garapena eta ondorioak.
- Gertakari horien ikus-entzunezko baliabideak erakustea.
- Gatazka nazioartekotzea.

### Prozedurazko edukiak

- Informazio-iturri ugariarekin lan egitea.
- Datuak eskuratzea, hautatzea eta antolatzea.
- Norberaren ideiak eta iritziak adieraztea eta zabaltzea.
- Informazioa balioestea, datu objektiboaren eta iritziaren arteko bereizketa eginda.
- Oinarrizko kontzeptuak definitzea.
- Garai historiko horretara hurbiltzea ikus-entzunezko baliabideen bidez.
- Gertakari historikoen kausa eta ondorioen azterketa.

### Jarrerazko edukiak

- Gurearekiko desberdinak diren iritziekiko errespetua.
- Jarrera biolento eta bidegabekiko gaitzespena.
- Ideia politiko desberdinak ezagutzeko interesa.
- Gerrek eragiten dituzten izugarrikeriekiko eta zorigaitzoko ondorioekiko jarrera kritikoa.
- Jarrera irekia, laguntzailea eta tolerantea pertsona arteko harremanetan eta/edo biktimekiko harremanetan.
- Gure gizartearen funtzionamendua arautzen duten mekanismo eta markoekiko interesa, bereziki, jarrera demokratikoak eta giza eskubideak arautzen dituztenekiko.
- Elkarrizketa gatazkek konpontzeko baliabide gisa onartzea.

## 6. IBILBIDE PEDAGOGIKOA

Unitate didaktikoez ibilbide hau jarraitzen dute ekintzak garatzeko:

1. **Gertakarien ezagutza eta analisia.** Historiari erreparatzea eta urte hauetan eragindako eta jasandako biolentzia aztertzea.
2. **Gertakarien ikus-eremua hedatzea.** Gerran, diktaduran eta trantsizioan zuzenean edo zeharka eragin zuten kasuak kokatzea.
3. **Sentimenduen adierazpena bideratzea.** Sentimenduak eta emozioak adierazten laguntzea eta empatia lantzea, hau da, bestearen lekuan jartzeko gaitasuna lantzea.
4. **Biktimekiko elkartasunezko konpromisoa garatzea.** Giza eskubideekiko errespetua, horien nolana hiko urraketekiko gaitzespena (exekutatuak, espetxeratuak, errepresaliatu ekonomikoak, erbesteratuak...) eta norberak justiziarekin eta ez-biolentziarekin duen konpromisoa.

Material pedagogiko hauek bizitutako gertakariak eta gertatutako biktimizazioak hurbilagotik ezagutzeko eta kontzientzia aldatzeko aukera emango dute, bizitutako bidegabekeriekiko sentsibilitatea areagotuta.

## 7. METODOLOGIA

Material pedagogikoez planteamendu metodologiko hauek jarraitzen dituzte:

- Material pedagogikoez partaidetza bultzatzen dute garatzerakoan, eztabaidarako eta hausnarketarako esparruak eskainita.
- Ariketak talde txikietan egindako lanarekin hasi eta talde handian egindako lanarekin osatzen dira.
- Hartzaileei orientabideak emango zaizkie garai hartan gertatutako gatazkei erantzuteko ekimen ez-biolentoak ezagutu eta iker ditzaten.
- Metodologia sozioafektiboa erabiliko da eta ikuspegi horrek talde osoaren partaidetza aktiboa eskatzen du. Ikasiko dugunak osagai kognitiboak, emozionalak eta praktikoak izango ditu.



- Ebaluazio jarraitua egingo da, programa txertatuko den kolektiboetako errealitateetara egokituko diren aldaketak egin ahal izateko.
- Taldearen, irakasleen eta hezitzaileen ebaluazioa bultzatuko da.

## 8. BALIABIDE DIDAKTIKOAK

Liburuak ez dira aski irudiekin eta teknologiarekin ohituta dauden ikasleak eta/edo gazteak motibatzen. Pertsona dinamikoak eta parte-hartzaileak nahi baditugu, hori bultzatuko duten baliabideak erabili behar ditugu. Ikasleak beren ikaskuntza-prozesuan sartzea funtsezkoa da.

Horien arreta errazago erakarriko da material ezberdinak erabiliz gero, hala nola argazkiak, dokumentalak, filmak, Interneteko bilaketak...

Material horiei esker, ikasleak errazago inplikatu eta sentsibilizatuko dira eta ezin hobeak izango dira testuinguru historikoa azaltzeko, ikasleek errealitatearen ideia zehatza egiteko aukera izango dutelako, hausnarketa eta eztabaida bultzatuta.

Ikasleena Internetekin hezitako belaunaldia denez, ezin dugu alferrik galdu ariketa komunikatiboak lantzeko baliabide horren aukera.

Ikaslea zenbat eta interesatuago eta barneratuago egon ikaskuntza-prozesuan, are gogobetegarriagoak izango dira emaitzak, hortaz, baliabide guztiak gutxi izango dira ikasleak ikasteaz goza dezan.

Baliabide horiek nahi den eragina izan dezaten, irakasleek eta hezitzaileek irudimenezko lana egiteaz gain, baliabideak egokitu eta sekuentziatu egin beharko dituzte.

## 9. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Aldez aurreko informazioa eskuratzetik abiatuta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzko erabakiak hartzeko prozesutzat hartzen da ebaluazioa.

Aurrez azaldutako helburuen eta gaitasunen betetze maila balioestea da asmoa.

Ebaluazio-sistemak garatu beharreko eginkizun bakoitzean planteatutako produktuak, baliabideak eta ebaluazioak jasoko ditu; baita material pedagogikoen ebaluazioa ere, oro har. Horregatik, produktuen eta ekintzen ebaluazioari erantzungo dio.

Ebaluazioak balioetsi beharreko ikaskuntzen alderdi esanguratsuenak zehazteko eta espezifikatzeko balio duten ebaluazio-irizpideak izango ditu.

Irakasleek/hezitzaileek ebaluatzeko proposatutako tresna erantsitako taula baten bidez azaldu ahal izango litzateke<sup>1</sup>.

### Ebaluaziorako tresnak

-Balioespen objektiborako probak: idatzizkoak edo ahozkoak izan daitezke eta unitate didaktiko bakoitzaren amaieran egingo dira.

-Eguneroko lanaren behaketa: partaidetza, etxean egindako lana, banakako lana, taldekako lana eta testu-iruzkinak.

-Lan-koadernoak eta planteatutako ariketetarako fitxak.

-Jarrera eta jokaera: bertaratzea, puntualtasuna, interesa, ekimena, materialaren erabilera egokia, eta adiskideekiko eta bizitzako kontakizunekiko errespetua.

## UNITATE DIDAKTIKOA: EUSKALDUNEN DEPORTAZIOA KONTZENTRAZIO-ESPARRUETARA

### EUSKALDUNEN DEPORTAZIOA KONTZENTRAZIO-ESPARRUETARA

#### TESTUINGURUAN KOKATZEA

##### Erbestea

Iparraldeko frontearen erorketarekin eta, geroago, II. Errepublikaren porrotarekin eta Gerra Zibilaren amaierarekin, milioi erdi espainolek Pirinioak zeharkatu zituzten diktadura frankistaren errepresioari ihes egiteko. Besteak beste, milaka euskaldun, Errepublikarekiko leialak zirenak eta askotariko ideologiak zituztenak (sozialistak, anarkistak, nazionalistak eta abar), Frantzia gelditu ziren, berriro ere beren aberrira itzuli eta mendebaldeko demokrazien laguntzari esker erregimen berriari amaiera emateko esperantzarekin. Apur bat geroago Europan izandako gertakariak haien ametsak zapuztu zituzten.

Frantziako gobernuaren harrera hotza izan zen; hain zuzen ere, erbesteratutako milaka lagun **konfinamendu-esparruetara** bidali zituen, besteak beste, Perpinyàko Argelès-sur-Merrekora eta zoritxarrez hain ezaguna den Bearnon, Zuberoarekin muga egiten duen lekuan, kokatutako Gurseko kontzentrazio-esparrura; azken horretan euskal jatorriko 6.555 lagun zenbatu zituzten 1939ko maiatzean.

Apur bat geroago, Frantziako gobernuak konfinamendu-esparru haiek hustu egin zituen eta gudari ohi errepublikanoak bere ejertzitoaren zerbitzura jarri zituen. Ezin saihestuzko gerraren atarian, eskulana beharrezkoa zuen defentsaleroak indartzeko.

##### Deportazioa

1940. urtetik aurrera, deportatutakoak aberrigabeentzat erreserbatutako triangelu urdinarekin markatu zituzten eta Europako geografian banatutako kontzentrazio-esparruetara bidali zituzten: Dachau, Buchenwald, Flossenbürg, Neuengamme, Ravensbrückeko emakumeentzako esparrua edo Mauthausenera. Azken esparru horretara bidali zituzten espainiar eta euskal jatorriko deportatu gehienak.

150 gizon-emakume euskaldun inguru igaro ziren kontzentrazio-esparru haietatik, baldintza lazarrietan.

Deportatutako euskaldunen erdiak hil egin ziren. Beste batzuk askatu eta handik gutxira hil ziren.

## HELBURU ESPEZIFIKOAK

1. Gazteak ezkutuko biktimizazioa ezagutzea; kontzentrazio-esparruetan egon ziren euskaldunak.
2. Gaztea gure iragan hurbilean gertatutako urraketez jabetzea.
3. Injustizia sozialeko egoeretan, gazteak azterketa kritikoa egitea.
4. Gazteak enpatiaz jokatzeko, bestearen lekuan jarrita.
5. Gazteak humanizatzeko ariketa egitea.
6. Gazteak kontzentrazio-esparruetan deportatuta egon zirenekiko konpromisoak garatzea.
7. Gazteak gure errealitatean giza eskubideak aplikatzeak duen garrantzia zein den ulertzea.

## LEHEN ATALA:

### LEHEN EKINTZA: ESPAINOLAK GERRETAN

## DESKRIBAPEN LABURRA

Euskal Herriak, Espainiak eta Europak garai hartan bizi zuten une historikoan kokatzea du helburu ariketak eta, aldi berean, erbesteratutako espainol askok eta askok bizi izan zuten arriskua eta kontzentrazio-esparruetan egindako egonaldia azaltzea.

## HELBURUAK

- Gaztea landuko dugun une historikoan kokatzea.
- Gazteak Espainiako Gerra Zibilak eta II. Mundu Gerrak izandako ondorioak eta gerrek, oro har, biztanleria zibilarengan dituzten zorigaitzoko ondorioak ezagutzea eta horien inguruko hausnarketa egitea.

## IRAUPENA

Dokumentalaren iraupena: 59:21. Minutu hau arte ikusiko dugu: 29:38.

Dokumentala ikusi ondorengo hauskarketa: 20 minutu.

Iraupena guztira: 50 minutu.

## MATERIALA

- Internet
- Proiektagailua
- Dokumentalaren esteka: <http://www.youtube.com/watch?v=j7--V5--dI0>



## EKINTZAREN GARAPENA

Dokumentala ikusita hasiko dugu ekintza. *Españoles en la segunda guerra mundial* (Espainolak II. Mundu Gerran) da dokumentalaren izenburua.

Dokumentala ikusi ondoren, horri buruzko elkaritzeta bideratuko dugu azterketarako urratsez lagunduta.

## AZTERKETARAKO URRATSAK

*Ikusitako dokumental zatiari buruzko laburpena taldeka.*

*Nola sentitu zarete dokumentala ikustean? Zer da deigarrien gertatu zaizuen?*

*Zer da Espainiako Gerra Zibilaz dakizuen? Eta II. Mundu Gerrari buruz dakizuen? Zergatik erbesteratu ziren hainbeste lagun Frantziara?*

*Ba al zenekien kontzentrazio-esparru nazietan espainolak izan zirela?*

*Zein izan da harridura gehien sortu dizun istorioa? Zergatik?*

*Nola tratatu zituen Frantziak erbesteratutako espainolak?*

## ONDORIOAK

Kontzentrazio-esparruetako basakeriak eta horren ondorioak ikus-entzunezko baliabidearen bidez hedatzea tragedia hura sozializatzeko baliabiderik eraginkorrenetakoa da, horregatik hasiko dugu unitate didaktikoa dokumentala ikusiz.

*“Españoles en la Segunda Guerra Mundial”* (Espainolak II. Mundu Gerran) dokumentalak oso ondo islatzen du II. Mundu Gerrak eta kontzentrazio-esparruek iraun zuten bitartean bizitutako errepresioa.

## BIGARREN EKINTZA: DEPORTATUEN MAPA

### DESKRIBAPEN LABURRA

Gazteek informazioa biltzea eta kontzentrazio-esparruetatik igaro ziren deportatutako euskaldunen mapa osatzea izango da helburua.

### HELBURUAK

- Gazteak mapan kokatzea euskaldunak zein kontzentrazio-esparruetatik igaro ziren.
- Gazteak kontzentrazio-esparruetatik igaro ziren euskaldunei buruzko informazioa bilatzea.
- Gazteak gertatutakoari buruzko ikuspegia zabaltzea.

### TESTUINGURUAN KOKATZEA

1940 eta 1945 urteen artean gutxi gorabehera 150 gizon-emakume euskaldun kontzentrazio-esparruetara deportatuak izan ziren. Gerra Zibilari eta Francoren diktadurari ihes egin nahian Frantziara erbesteratu ziren.

Haien erdiak soilik lortu zuen zorigaiztoko esperientzia hari bizirautea. Beste erdia erbestean bizitu zen gainerako bizialdian. Euskadin geratu ziren haien senideek isiltasunaren lege gogorra sufritu zuten eta askok ez du duela urte gutxi arte ahaide maiteen egonlekuaren eta izandako zortearen berri izan. Beste batzuk horren berri izan gabe hil dira.

### IRAUPENA

Iraupena guztira: 50 minutu.


## MATERIALA

Interneterako konexioa duten ordenagailuak.

## EKINTZAREN GARAPENA

Euskal Memoriale orrialdeko DEPORTAZIOAREN MAPA atalean azaltzen den kontzentrazio-esparruetan deportatutako euskaldunen mapa erakutsiko diegu gazteei:

[http://www.euskalmemoriala.net/es/?page\\_id=12](http://www.euskalmemoriala.net/es/?page_id=12)



Ondoren, talde handia bikotetan banatuko dugu eta deportazioaren mapan azaltzen diren datuak azertu ostean, mapa osatzen lagunduko digun informazioa biltzeko esango diegu. Horretarako, bikote bakoitzak hau egin beharko du:

- Mapan azaltzen den kontzentrazio-esparruetako bat aukeratu.
- Kontzentrazio-esparru horretara deportatutako 2 lagunen izenak idatzi.
- Kontzentrazio-esparru horretako 3 argazki gehitu gutxienez.
- Informazioa nondik atera duten aipatu.



Bikote bakoitzak mapsengine-ra (aurreratutako mapa pertsonalizatuak) igo beharko du bildutako informazioa:

<https://mapsengine.google.com/map/>

\*Mapsengine erabili nahi ez badute, bilaketak Interneten egin eta kartoi meheetan txerta dezakete informazioa.

Lana amaitu ondoren, bikoite bakoitzak gainerako ikaskideei aurkezpena egin beharko dio.

## AZTERKETARAKO URRATSAK

*Nola sentitu zara ekintzaren garapenean? Zer da ikasi duzuna? Zer da deigarri egin zaizuna?*

*Nolakoa izan da zure partaidetza? Eta taldearena?*

## HIRUGARREN EKINTZA: AURREIRITZIEN TRIANGELUAK

### DESKRIBAPEN LABURRA

Pertsona bakoitzak "etiketa" bat izanik, eztabaida garatzea izango da ariketaren helburua.

### HELBURUAK

- Gazteak estereotipoek harremanetan eta komunikazioan nola eragiten duten aztertzea.
- Gazteak estereotipoek eta aurreiritziek gure funtzionamenduan nola funtzionatzen duten ulertzea.

### IRAUPENA

Ariketa klaseak irauten duen denboran (50 minutu), goiz oso batean edo lehen atal honetan egin daiteke.

## TESTUINGURUAN KOKATZEA

Kontzentrazio-esparru naziek nagusiki alderantzikatutako triangeluetan oinarritutako sistema erabiltzen zuten presoak markatzeko. Triangeluak oihalez egiten ziren eta presoen jaka eta alkandoretara josten ziren. Marka haiek nahitaezkoak ziren eta esanahi zehatza zuten, horrela, presoak kontzentrazio-esparruan sartzeko arrazoia zein izan zen jakiteko balio zuten.

Markaketa-kodearen oinarrian koloreak zeuden. Hortaz, koloreek delitu edo arrazoi ezberdinak adierazten zituzten:

Horia ▼ juduentzat.

Gorria ▼ preso politikoentzat.

Berdea ▼ kriminal arruntentzat.

Urdina ▼ emigranteentzat.

Morea ▼ Jehovaharen testiguentzat.

Arrosa ▼ gizon homosexualentzat.

Beltza ▼ hauentzat guztientzat: emakume asozialak, emakume homosexualak, prostitutak, alferrak, gaizkileak, etxegabeak, moldakaitzak, adimenez atzeratuak, gaixo mentalak, ijitoak, zenbait anarkista, alkoholikoak eta drogazaleak.

Marroia ▼ geroago ijitoentzat erabili zen.

Triangelu horiek ▲ triangelu horiari gainjartzen zitzaizkion, presoek beste delitu batzuek gain, juduak zirela adierazteko. Juduen kasuan, horrek Dabiden izarra edo sei puntako izar horia ematen zuen ✨.

Koloreen kodeaz gain, zenbait taldek letra jarri behar izaten zuten triangeluaren erdian jatorrizko herrialdea adierazteko:

B belgikarrentzat (Belgier).

F frantsesentzat (Franzosen).

I italiarrentzat (Italiener).

P poloniarrentzat (Polen).

S espainolentzat (Sicherheitsverwahrter —aurreneurritzko atxilotetan dagoen preso— edo Republikanische Spanier —errepublikano espainola—).

T txekiarrentzat (Tschechen).

U hungariarrentzat (Ungarn).

Hauek ziren beste marka batzuk:

Preso-zenbakia.

Triangelu gainean, horren kolore bereko barrak berrerortzea adierazten zuen.

Triangelu azpiko zirkulu beltzak  adierazten zuen.

Aurrekoaren antzeko ikurra, erdigune gorriarekin, ihes egiteko saiakeraren susmoa lotzen zitzairen presoentzat erabiltzen zen.

Triangelu gorriak ▲ indar armatuetakoa zela adierazten zuen.

Besoko marroiak preso bereziak markatzen zituen.

«Arraza arteko harremanak» (Rassenschänderin edo Judenhure) leporatzen zitzaizkien emakumeak alderantzikatutako triangelu hori eta beste triangelu beltz batekin markatzen ziren.

«Arraza arteko harremanak» (Rassenschänder) egozten zitzaizkien gizonezkoak triangelu horiaren gainean alderantzikatutako ertz triangeluar beltzarekin markatzen ziren.

Konbinazio ugari zeuden. Presoek gutxienez bi marka izan ohi zituzten, baina sei edo gehiago izatera hel zitezkeen.

Kontzentrazio-esparru alemanetan preso egon ziren espainolek, bidalitako esparruaren arabera, triangelu gorria eraman behar zuten, preso-politikoek marka gisa (kolore gorria hasiera batean komunisteri egotzi bazitzairen ere, aurrerago demokratik, liberalak, masoiak, anarkistak, erregimenarekiko bestelako aurkariak, juduak eta ijitoak horrekin markatu ziren) edo triangelu urdina, "aberrigabe" gisa, Francoren aginduak betetzeko.



## MATERIALA

- Kartoi mehezko triangeluak.
- Zeloak.


## EKINTZAREN GARAPENA

Irakasleak edo hezitzaileak kontzentrazio-esparru nazietan presoak markatzeko erabiltzen zuten sistema prestatuko du.

Parte-hartzaile bakoitzari bizkarrean jarriko dio marka, hark ikusi gabe. Hasierako agindua hau izango da: kontzentrazio-esparru nazian gaude.

Denek beren triangelua bizkarrean dutenean, hitz egiteko gaia proposatuko dugu. Etabaidak irauten duen bitartean, bizkarrean ikusitako triangeluak norberarentzat duen esanahiaren arabera tratatuko du bakoitzak bestea. Ez da etiketan jartzen duena esan behar, pertsona "etiketa" horri dagokion ideien arabera tratatu baik.

Markaketa-sistema:



JUDUA	GAIZKILEA
PRESO POLITIKOA	ETXEGABEA
KRIMINAL ARRUNTA	IJITOA
EMIGRANTEA	ANARKISTA
JEHOVAREN TESTIGUA	GAIXO MENTALA
HOMOSEXUALA	ESPARRUKO ZUZENDARIA (triangelurik gabe)
PROSTITUTA	ZAINDARIA (triangelurik gabe)
ALFERRA	ZAINDARIA (triangelurik gabe)
ZAINDARIA (triangelurik gabe)	ZAINDARIA (triangelurik gabe)
ZAINDARIA (triangelurik gabe)	ZAINDARIA (triangelurik gabe)

## AZTERKETARAKO URRATSAK

*Nola sentitu zarete?*

*Norbaiti buruz egindako lehen irudiak nola eragiten dio komunikazioari? Edo besteek hari buruz emandako irudiak?*

*Berdin baloratzen al da denen hitza? Zergatik?*

*Zein da kontzentrazio-esparruetako etiketa- eta markaketa-sistemaz duzun iritzia?*

## ONDORIOAK

Etiketak jartzen ditugunean eta dena delako pertsona kolektibo jakin batean kokatzen ahalegintzen garenean, orokortzen ari gara. Prozesu horri orokortzea deritzo eta horren ondorioa da pertsonak kokatu dugun taldearen arabera jokatu duela espero izatea. Gertakari horrek ulermenerako leku urria uzten du eta, horrez gain, bereizten gaituen horretan gehiago sakontzen dugu eta pertsonarengandik urruntzen gaitu, komunean dugun horretan sakondu gabe.

## BIGARREN ATALA

### LEHEN EKINTZA: TESTIGANTZAK

#### DESKRIBAPEN LABURRA

Ariketen atal honetan bi lagunen bizitza ezagutuko dugu apur bat: Maria Juana Guesala eta Angel Lekuona.

Maria eta Angel 1940 eta 1945 artean kontzentrazio-esparruetara deportatutako 150 euskaldun haien artean zeuden. Gerra Zibilari eta Francoren diktadurari ihes egin nahian Frantziara erbesteratu ziren.

Haien bizitzetara hurbiltzen ahaleginduko gara haien iloben testigantzei esker.

#### HELBURUAK

- Gazteak kontzentrazio-esparruetan egon ziren bi euskaldunen historia ezagutzea.
- Gaztea besteren sentimenduez eta ikuspegiez jabetzea eta haien bizipenez aktiboki interesatzea.

#### IRAUPENA

Saio bakoitza 50 minutukoa.

#### MATERIALAK

Ordenagailua eta proiektagailua.

Maria Luisa Guesalaren testigantzaren bideoa Euskal Memoriala webgunean.  
[http://www.euskalmemoriala.net/es/?page\\_id=947](http://www.euskalmemoriala.net/es/?page_id=947)

Anton Gandariasen testigantzaren bideoa Euskal Memoriala webgunean.  
[http://www.euskalmemoriala.net/es/?page\\_id=951](http://www.euskalmemoriala.net/es/?page_id=951)

## EKINTZAREN GARAPENA

Ekintza honetan Maria Juana Guesalaren eta Angel Lekuonaren iloben testigantzak ikusiko ditugu.

Testigantza bakoitza ikusi ondoren, irakasleak edo hezitzaileak atal bakoitzean adierazitako ariketari hasiera emango dio.

### I. ATALA: MARIA JUANA GUESALAREN BIZITZARI BURUZKO TESTIGANTZA

Saioari hasiera emateko, kontzentrazio-esparruen inguruan landutakoa gogoratuko dugu: zer diren eta abar. Gaurko saioan, bi euskaldunen senitartekoen testigantzei esker, kontzentrazio-esparruetan preso egondakoen bizitza hobeto ezagutzen saiatuko gara: Maria Juana eta Angel Lekuona.

Horretarako, lehenik eta behin, taldea 5 laguneko talde txikiagoetan banatuko dugu testigantza entzun dezaten eta, ondoren, jarraian datozen galderei erantzun diezaieten.

Amaieran, taldeetan landutakoa partekatuko dute.



*Maria Juana Guesalaga Zarautzen jaio zen 1907ko abenduaren 3an.*

*1931ko urriaren 15ean Jose Miguel Beguiristainekin ezkondu zen. Beguiristain izatez Tolosakoa zen, zapataria lanbidez eta Alderdi Komunistako kidea.*

*Gerra Zibilak iraun zuen bitartean, Langileen Batasun Orokorreko (UGT) militante aktibo ere izan zen.*

*Fronte errepublikano nagusiak erori zirenean, bikoteak Frantziara ihes egin behar izan zuen 1939an eta Bordelen erbesteratu zen, Le Barcarès eta Gurseko esparruetatik igaro ostean.*

*Jose Miguel Beguiristainek jarduera politikoarekin jarraitu zuen Frantzian. Legio atzerritarrean izena eman zuen eta ezkutuko militanteentzat dokumentazio faltsua eskuratzeaz arduratzen zen Alderdi Komunistako taldekidea izan zen. Hori dela eta, dagoeneko tropa naziek hartutako Frantziako erbestealdian muga birritan zeharkatu zuen 1942an, agiri pertsonalak eskuratu eta Bordelera eramateko misioarekin. Ezkutuko bidaia haietan bizia arriskuan jartzen zuen muga dokumentaziorik gabe igarota, alde zurretik kontrabandistek ordainduta.*

Ezkutuko bidaia arriskutsu haietako batetatik bueltan, Jose Miguel Beguiristainek emaztea, Maria Guesalaga, naziek atxilotu zutela jakin zuen. Jose Miguel desagertu egin zen eta haren arrastoa betiko galdu zen. Maria Compiègneko igarotze-esparrura (Paris iparraldean) eraman zuten. 1943ko apirilaren 28an iritsi zen bertara.

## TESTIGANTZAK IKUSTEKO URRATSAK

**0:20 – 01:00 min:** sarrera

**01:00-03:55 min:** nor zen Maria, zergatik atxilotu zuten eta noiz askatu zuten.

**03:56-05:24 min:** Mariak bere bizitzari berriz ekin zion.

**05:26 – 06:21 min:** Zarauzko familiarekin harremana.

**06:27-07:22 min:** Mariak bizirautea lortu zuen.

**07:24 – 09:58 min:** familiaren eta herriaren isiltasuna.

**10:07 – 14:45 min:** Mariaren itzulera Zarautzera eta aitortpena.

## AZTERKETARAKO URRATSAK

Marratzuko al zenuke Maria Juanaren bizitzako gertakari nagusiak biltzen dituen lerroa?

Zer da Maria Juanaren bizitzatik deigarrien suertatu zaizuna? Zergatik?

Nola deskribatzen du Maria Luisak Maria Juana Guesala izeba? Harridura sortu al dizue deskribapen horrek? Zergatik?

Maria Luisak izeba deskribatzeko erabilitako adjektiboetako bat "heroia" da, zergatik uste duzu erabiltzen duela hitz hori izeba deskribatzeko? Nor deskribatuko zenuke zuk heroi gisa?

Elkarrizketaren zati batean, Maria Luisak honela dio izebak bizitutako esperientziari buruz: "oso barruan zeraman". Zer da zuen ustez horrekin adierazi nahi duena? Zer izan ohi da "barruan" eraman ohi duguna?

Maria Juanak eta haren senideek ez zuten Maria Juanaren lehen senarraren, Jose Miguel Beguiristainen, berri gehiagorik izan. Nola uste duzue sentitu zirela denbora guzti horretan?



*Pentsa Maria Juanari bere bizitzari buruzko galderaren bat egiteko aukera duzuela, zer galdetuko zenioke? Zergatik?*

## II. ATALA: ANGEL LEKUONAREN BIZITZARI BURUZKO TESTIGANTZA

Saio honetan, Angel Lekuonaren ilobaren, Anton Gandariasen, testigantzari esker, kontzentrazio-esparruetan preso egondakoen bizitzan sakontzen jarraituko dugu.

Horretarako, taldea 5 laguneko talde txikiagoetan banatuko dugu testigantza entzun dezaten eta, ondoren, jarraian datozen galderei erantzun diezaieten. Amaieran, taldeetan landutakoa partekatuko dute.



*Angel Lekuona Busturian jaio zen.*

*Gutxi gorabehera hamabost urte zituela, itsasoan lan egitera joan zen eta Ferrolen soldadutza egiteko itzuli zen.*

*Gerra Zibila hasi zenean, Busturiako beste adiskide batzuekin batera Bartzelonara ihes egitea erabaki zuen, gero handik Frantziara igarotzeko asmotan. 1940. urtean Frantziara igaro zen.*

*1943an, Frantzian zegoela, Gestapok atxilotu egin zuen eta Bordeleko Fort du Hâ-ra bidali zuen eta handik Paris iparraldean kokatutako Compiègneko kontzentrazio-esparrura.*

*1944ko urtarrilaren 19an Alemaniako Buchenwald kontzentrazio-esparrura eraman zuten beste bi mila presorekin batera eta hilabete geroago, otsailaren 23an, Flossenburgera eraman zuten.*

*Han preso politiko moduan sailkatu zuten, 6.516 zenbakiarekin.*

*SSek errepidean fusilatu zuten 1945eko apirilaren 10ean beste hainbat presorekin batera.*

*Angel Lekuonaren senideek harekin preso egondako Gregorio Uranga adiskideak 1945eko uztailaren 16an idatzitako gutunari esker jakin zuten Angelen ibilbidearen eta heriotzaren berri. Horrela jakin zuten Angel Lekuona 1945eko apirilaren 10ean hil zela, tropa aliatuek hura zegoen kontzentrazio-esparrua askatu baino egun gutxi batzuk lehenago.*

*Kontzentrazio-esparruak askatu zireneko 60. urteurrenean, Anton Gandarias eta bere anaiak osabaren historiari buruzko txostena egin eta Busturiako Udalean aurkeztu zuten. Oso jende gutxik ezagutzen zuen herrian Angel Lekuonaren bizitza. Urtero, abuztuko lehen igandean, Busturiako Udalak Angel Lekuona eta 1937ko abuztuan fusilatutako herriko beste zazpi lagun gogoratzeko ekitaldia antolatzen du.*

*Gaur egun, Flossenburgeko kontzentrazio-esparruko memorialean Angel Lekuonaren historia jasotzen duen plaka ikus daiteke, preso espainol baten biografiaren oroitzapenezko ekitaldi gisa. "Ni kontent nago, horrela nire osabak aitortpena izango baitu eta norbait hara joaten bada, Angel Lekuonaren biografia dagoela ikusiko du*

(...) Hartara, Busturiako seme bat Alemanian hil zela jakingo du jendeak. Hori besterik ez. Jendeak zer gertatu zen jakin dezan”.

Anton Gandariasek eskerrak ematen dizkio Busturiako Udalari eta emazteari emandako laguntzagatik. Emazteak bultzatu zuen osabaren historia zabaltzera “Niregatik izan balitz ez nuen ezer kontatuko eta zerbait pertsonal gisa geratuko zen. Nire zaletasun gisa. Amaiak bultzatu ninduen komunikabideren batetara hurbiltzera. Arrazoi zuen... Orain kontatzen dut, baina hasieran barru-barruko zerbait zen. Zergatik ez dut ba kontatuko? Jendeak jakin egin behar du. Ez naiz damutzen”.

## TESTIGANTZAK IKUSTEKO URRATSAK

**04:10 – 05:43 min:** fusilatu egingo dute. Nola hil zuten azalduko dute, ezohikoa dena.

**10:13 – 13:27 min:** Gregorio Urangak, Angelen kontzentrazio-esparruko adiskideak, idatzitako eskutitzaren irakurketa.

**16:00 – 18:13 min:** informazioa bilatzeko prozesua eta Flossenburgeko memorialeko aitortpena.

**18:14 – 20:46 min:** jaioterriko aitortpena, Busturia.

**20:46-21:40 min:** gertatutakoa ezagutarazteak duen garrantzia.

## AZTERKETARAKO URRATSAK

Lehenik eta behin, erantzun galdera hauei lantaldeetan.

Nola sentitu zara Angelen bizitzako testigantza entzun duzunean?

Zer alderdi partekatzen dituzte Angelek eta Maria Juanak? Zer alderdik desberdintzen ditu?


Bi testigantzetan Angelen eta Maria Juanaren bizitzari buruzko familien isiltasuna aipatzen da, zergatik uste duzu gertatzen dela hori?

Zergatik uste duzu familian ez zutela haietaz hitz egiten?

Senideek orain zergatik hitz egiten dute haiei buruz?

Zer da zure ustez Maria Luisak eta Antonek lortu nahi dutena beren senideen historia kontatuz? Zergatik da zure ustez garrantzitsua?





Angelen kontzentrazio-esparruko adiskide Gregorio Urangak eskutitza (eranskina<sup>2</sup>) idatzi zien haren senideei Angel fusilatu egin zutela jakinarazteko.

Nola sentitu zara eskutitz hori entzutean/irakurtzean? Zer sentimendu eragin dizkizu? Zure ustez zer erantzun zuten Angelen senideek?

## ONDORIOAK

Isiltasuna.

“Gertatutakoaren berri izatea” “ez dadila ahaztu”. Memoriak iragana orainaldiko ikuspegiarekin erabiltzeko aukera ematen du, iraganean sufritutako bidegabekerien irakaspenak gaur egun gertatzen direnen aurka borrokatzeko aprobetxatzeko eta norbere buruarengandik urundu eta bestearengana hurbiltzeko. Errugabearen sufrimendura sendotasun handiagoarekin hurbiltzea ahalbidetzen duten aparteko kasuak lantzearekin du zerikusia memoriak. Ikasketa zentzu etiko politikoan egitea da bilatzen dena.

## III. ATALA: PRIMO LEVIREN HAU GIZON BAT BADA LANAREN PASARTEAK.

Orain artean Maria Juana eta Angelen bizitzak ezagutu ahal izan ditugu haien senideen testigantzei esker. Ez dugu haien zuzeneko testigantzarik. Hala ere, baditugu haien esperientzia berak bizitu zituzten zenbait lagunen idatziko lekukotasunak, Primo Levirena kasu.

Irakurketari ekin aurretik, gure protagonisten egun bat kontzentrazio-esparruan nola izango zen imajinatzeko esango diogu taldeari.

*Zaila da Angelen eta Maria Juanaren bizitzako egun bat irudikatzea. Imajina al dezakezue nolakoa izango zen egunerokoa kontzentrazio-esparru barruan? Idatzi lerro batzuk Maria Juanaren edo Angelen egun bat nolakoa izango litzatekeen azalduz.*

Zaila da hain muturrekoa eta guretzat hain ezezaguna den egoera imajinatzea.

Taldea 5-6 laguneko talde txikiagoetan banatzea proposatuko dugu. Talde bakoitzari ondoren datorren laburpena banatuko diogu.



"Aitortu beharra dut: astebete baino ez daramat preso eta dagoeneko garbitasunaren sena desagertu zaidala nabari dut. Jiraka nabil, komunetan balantzatzuz eta hemen da Steinlauf, ia berrogeita hamar urteko adiskidea, gorputzenborra biluzik duela, lepoa eta bizkarra igurtziz emaitza urriarekin (ez du xaboirik), baina adore handiz. Steinlaufek ikusi eta agurtu egin nau eta argi eta garbi zorroztasunez galde egin dit ea zergatik ez dudan nire burua garbitzen. Zergatik garbitu behar dut neure burua? Nagoen moduan baino hobeto egongo al naiz? Gustukoago izango al natzaio norbaiti?"

Egun bat edo ordubete gehiago biziko al naiz? Are gutxiago biziko naiz, garbitzea lana baita, energia eta beroa alferrik xahutzea. Ez al daki Steinlaufek ordu erdiz ikatzek betetako zakuak zamatu ostean bion arteko alderik ez dela izango? Zenbat eta gehiago pentsatu horretan, orduan eta ekinza txepelagoa iruditzen zait gure egoeran aurpegia garbitzea, friboloa izateraino: ohitura mekanikoa edo, are okerragoa dena, desagertutako errituaren errepikapen tristea. (...)

Steinlaufek isilarazi egin nau, ordea. Bere burua garbitzeaz amaitu du eta hankartean bilduta zuen oihalezko jakarekin lehortzen ari da. Gero jantzi egingo du. Egiten ari dena albo batera utzi gabe benetako ikasgaia eskaini dit.

Gaur ez ditut gogoan 1914-1918 arteko gerran burdinazko gurutzua izandako ejertzito austrohungariarreko Steinlauf sanjentuaren zuzeneko hitz argiak, sentitzen dut. Sentitzen dut, haren italiara zalantzati eta soldadu onaren arrazoibide xumea nire sinesgogor hizkuntzara itzuli beharko baitut.

Hau zen baina esanahia, orduan eta gerora ere ahaztu ez dudana: hain zuzen ere, Lager (deuseztatze-esparrua) gu animalia bihurtzeko makina izugarria denez, ez dugu animalia bihurtu behar; leku horretan bada ere, biziraun daiteke eta, horregatik, bizirauteko nahia izan behar da, kontatzeko, testigantza emateko; eta bizitzeko garrantzitsua da gutxienez eskeletoa, armazoa, zibilizazio-modua, salbatzeko ahalegina egitea. Esklabuak gara, inolako eskubiderik gabeak, eraso ororen mende gaudenak, ziur heriotzara halabeharrez bideratuta gaudenak, baina gaitasun bat geratzen zaigu eta gure indar guztiarekin defendatu behar dugu, azkenekoa delako: gure onspena ukatzeko gaitasuna. Hori dela eta, aurpegia xaboirik gabe garbitu behar dugu, ur zikinetan eta jakarekin lehortu. Zapatei betuna eman behar diegu, baina ez araudiak hala dioelako, duintasunagatik eta garbitasunagatik baizik. Zuzen ibili behar dugu, eskalapoiak herrestatu gabe, ez diziplina prusiarrari men egitearren, bizirik jarraitzeko baizik, hiltzen ez hasteko".

**Levi, Primo, Hau gizon bat bada, Buenos Aires, Muchnik, 2002.**

## AZTERKETARAKO URRATSAK

Zein da protagonistaren eta Steinlaufen jarreraren arteko aldea?

Haren lekuan egongo bazina, zein jarrerarekin egongo zinatekeela ados uste duzu?

Zein da zure ustez Steinlaufek eman nahi duen mezua?

## HIRUGARREN ATALA

### LEHEN EKINTZA. IN MEMORIAM...

#### DESKRIBAPEN LABURRA

Ariketa honetan, behin euskaldunen kontzentrazio-esparru nazietako fenomenoaz ezagututa, gazteek ingurune hurbilenean ordain sinbolikoa ematea izango da xedea.

#### HELBURUAK

- Gazteak kontzentrazio-esparruetan sufritu behar izan zuten euskaldun guztiei omenaldia egitea.
- Gazteak ingurune hurbilenean pertsona haien guztien bizitzako historia duin bihurtzea.
- Gazteak pertsona haien memoriari sinbolikoki ordaina ematea.

#### IRAUPENA

50 minutu.

#### EKINTZAREN GARAPENA

Gertatutakoa gogoratzeko eta oroitzapen bizi horrek ahazten ez uzteko toki mailan zer egin behar litzatekeen galdetuko diegu gazteei.

Ideiarik bururatzen ez bazaie, hona hemen denen artean abian jar ditzaketen zenbait ideia:

- Gurseko kontzentrazio-esparrua ezagutzera joatea.
- Harremanetan jartzeko: Centre d'Histoire de la Résistance et de la Déportation 14, avenue Berthelot 69007 Lyon.

- Ikastetxean/toki mailan zuhaitz bat landatu eta kontzentrazio-esparruetan egondako guztien izenak (toki, probintzia edo erkidego mailan) plaka batean idazteko baimena eskatzea.
- Artea iragana hobeto metabolizatzeko lagungarria da: ikastetxean/lokalean ikusteko moduko lekuan hainbat materialekin zuhaitza egitea izango litzateke beste aukera bat eta hosto bakoitzean kontzentrazio-esparruetan jazarpenak sufritu zituen pertsona baten izena zintzilikatzea.
- Zuhaitzaren irudiarekin jarraituz, ikasturtean zehar hura elikatu eta ureztatzea sinboliza dezaketen ekintzetara bideratutako konpromisoak landu daitezke, gure eguneroko konpromisoaren irudi bizi eta dinamikoa bermatzeko. Konpromiso horiek ikastetxe barruko ekintzak, nahiz ikastetxetik bultzatuta gizarte mailan ondorio handiagoa duten ekintzak bilaka daitezke.

Azken horren adierazgarri izan daitezke egunkarietara bidalitako gutunak, datak gogorarazteko eta biktimekiko gure oroitzapena eta enpatia adierazteko. Gutun horiek beste komunikabide batzuei (irratia...), herriko udalari, memoria lantzen duten elkarteei, biktimei edo haien familiei bideratu daitezke.

## ONDORIOAK

Gure inguruan faltan izan dugu Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimek behar zuten besarkada soziala. Dosi txikietan jaso dute memoriaren berreskurapenean lanean ziharduten kolektibo espezifikoen eskutik eta/edo errealitate horrekin oso sentsibilizatuta zeuden herritarren eskutik, baina gizarte gisa ez dugu jakin hor egoten pertsona horiei eta haien familiei harrera egin eta laguntzeko.

Material pedagogiko hauen eta pertsona horien bizipenen bitartez zuzeneko, nahiz zeharkako, biolentzia sufritu dutenekiko elkartasuna adieraztea da helburua, hain zuzen ere. Kontuz eta arretaz egindako ekintza, modu sortzaile eta baketsuan etorkizuneko eszenatokiak sortzera eramango gaituena; egia, justizia eta ordaina bermatuta eta eragindako pertsoneri, haien familiei eta herritarrei gizakiarenganako konfiantza itzuliko diena.

## 1 ERANSKINA. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK.

HELBURUAK/GAITASUNAK	PRODUKTUAK/TRESNAK	EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

2. ERANSKINA. GREGORIO URANGAK ANGEL LEKUONAREN FAMILIARI  
IDATZITAKO GUTUNA

Dirección  
Urranga - Gregorio  
Plaza del Frontón  
Urrugne  
(Bajas Siervas)

Urrugne 16 de Julio de 1945

Muy Sr. mio: Comprendo la ansiedad que reina en su familia, pues no sé cuanto tiempo estará desprovisto de noticias referentes a su hijo. Refugiado de la guerra de España, estaba trabajando en Francia. El motivo de estar aquí, seguramente estarán al corriente, tan bien como yo, por lo tanto no insistiré sobre este asunto.

Después hemos sufrido la ocupación de los alemanes, que como Ud. sabe han cometido crímenes horribles, siendo una de entre las víctimas, su hijo. Desde su arresto, su hijo trabajaba en la fabricación del carbón, haciendo más o menos tráfico clandestino que le permitía vivir más fácilmente. Inculcado por un motivo ridículo fue arrestado y llevado al Fuerte de Húa de Burdeos; más tarde conducido a Compiègne donde permaneció varios meses, siendo a continuación, siguiendo la suerte de muchos franceses y españoles, llevado a Buchenwald, - era este lugar el régimen de támba -; cambio de campamento para Flossenbürg, donde estaba bajo el Comandante "Haradielchov" en Moldau-Praga.

Apenas su hijo llegó al Comandante, cayó enfermo el pobre, muy enfermo, pues debió sufrir varias operaciones, siendo atendido de una pleuresía purulenta. A pesar de los débiles cuidados y malos tratos, pudo salir adelante, bien es verdad que alrededor de 7 meses tuvo que estar en la enfermería. Después de algunos días de convalecencia, su hijo siempre perseguido por la desgracia, fue enrolado en el grupo de trabajadores más duro de este desgraciadamente famoso Comandante 12. Siempre sorteando todas las dificultades, permanecía tranquilo y sufrido, apoyado por sus amigos de infortunio, resistiendo valerosamente a pesar de las intemperias, golpes y alimentación insuficiente para la vida de un hombre sobre todo para su hijo que se hallaba muy enfermo.

Siempre con la esperanza de un fin próximo de guerra vivíamos juntos, pero desgraciadamente su hijo no podrá tener el cuidado y cariño de seres que le son muy queridos, tales como padres, hermanos y hermanas. Su hijo ha sido víctima de la barbarie

Urruña, 1945eko uztailaren 16a



Helbidea  
 Uranga, Gregorio  
 Frontoi plaza  
 Urruña  
 (Behe Pirinioak)

Jaun agurgarria:

Pentsa dezaket zein den familian bizi duzuen kezka; izan ere, ez dakit zenbat denboran ez duzuen semearen berri izan. Espainiako gerratik errefuxiatuta Frantzia ari zen lanean. Ziur asko jakingo duzue, nik bezain ondo, hona etortzeko arrazoia zein izan zen, beraz, ez naiz gai horretan sartuko.

Alemanen okupazioa sufritu genuen gero. Jakingo duzun bezala, krimen izugarriak egin dituzte eta zuen semea biktimetako bat izan da. Atxilotu zutenetik, zuen semeak ikatza fabrikatzen egiten zuen lan, han eta hemen ezkutuko trafikoa eginez, erosoago bizi ahal izateko. Arrazoi lotsagarriaz erruztatuta atxilotu eta Bordeleko Fort du Hâ-ra eraman zuten; ondoren, Compiègnera eraman zuten eta bertan hainbat hilabetez egon zen; handik, beste hainbat frantses eta espainolen antzera, Buchenwaldera eraman zuten (ankerkeriaren erregimenaren lekua zen); ondoren, esparruz aldatu eta Floosenbürgera eraman zuten, Moldasen (Praga) Haradiochov komandoaren mende jarritz.

Komandora iritsi bezain laster, zuen seme gizajoa gaixotu egin zen, oso gaixo jarri ere, eta hainbat ebakuntza egin behar izan zizkieten, pleuresia purulentua zuelako. Zaintza ahulak eta tratu txarrak jasan zituen arren, aurrera egin zuen, nahiz eta 7 hilabete inguru egon behar izan zuen erizaindegian. Gaixondoko zenbait egun igaro ostean, zoritxarrak jotako zuen semea tamalez ezaguna den 12. komandoko langile talderik gogorrean sartu zuten. Zailtasun guztiei aurre eginez, lasai egoten zen eta eraman handia zuen; ezbeharrean adiskide zituenek laguntzen zioten, aurrera eginez egurats gorri, kolpe eta gizakiak bizitzeko behar adinakoa ez zuen elikaduraren aurrean, batez ere zuen semearentzat, oso gaixo baitzegoen.

Gerra laster amaituko zenaren esperantzarekin bizi ginen elkarrekin, baina zoritxarrez zuen semeak ezin izango ditu hain maite dituenen zaintza eta maitasuna eduki, hala nola guraso eta anai-arrebenak. Zuen semea basakeriaren biktima izan da.